



## Hau da aste honetako euskararen pilula!

### "prenda" euskaraz, nola?

Gaztelaniazko **prenda** euskaraz, orokorrean, **jantzi** edo **arropa** esaten badugu ere, zuzenbidean izan ohi duen adierari begiratuta, **bahi** erabiltzen da terminologia juridikoan.

#### Prenda > bahi

Horrela definitzen du 2006ko Hiztegi Terminologikoak:

Ondasun higigarrien gaineko berme-eskubide errealak, betebeharrak nagusia beteko dela ziurtatzeko erabiltzen dena.

#### ADIBIDE BATZUK

- “Procedimiento para exigir el pago de deudas garantizadas por **prenda** o hipoteca” > “**Bahi** edo hipoteka bidez bermatutako zorren ordainketa galdatzeko prozedura”
- “El valor de los bienes para la subasta será el fijado en la escritura o póliza de constitución de la **prenda** y, si no se hubiese señalado, el importe total de la reclamación por principal, intereses y costas” > “**Bahia** eratzeko eskrituran edo polizan finkatutakoa izango da ondasunek enkanterako duten balioa, eta, finkatu ez bada, printzipalagatik, korrituengatik eta kostuengatik erreklamaturako guztizko zenbatekoa”
- “Cuando el procedimiento tenga por objeto deudas garantizadas por **prenda** o hipoteca de vehículos de motor, el letrado de la Administración de Justicia mandará que los bienes pignorados o los vehículos hipotecados se depositen en poder del acreedor (...)” > “Prozeduraren objektu direnean **bahi**arekin edo motordun ibilgailuen hipotekarekin bermatutako zorrak, Justizia Administrazioaren letraduak aginduko du hartzekodunaren (...) esku gordailutu daitezela ondasun pignoratuak edo ibilgailu hipotekatuak.”

#### ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)